

Gai Ordena:

- 1.- Beko Kaleko proiektua
- 2.- Udal eraikinetan energia aurrezteko plana
- 3.- Gai pendienteak:
 - + Eskola
 - + Iberdrola

1. BEKO KALEKO PROIEKTUA

Beko Kaleko proiektuaren nondik norakoak finkatu behar dira proiektua egiteko eskatu behar denean beharrak eta baldintzak zeintzuk diren ondo azaltzeko. Proiektuaren helburu nagusia Beko Kale eraberritzea da, eta, 2014ean egindako parte hartze prozesuan argi geratu zen, horretarako funtsezkoa dela kaleari autoentzako zentzu bakarra ezartzea. Honen ondorio nagusia Beko Kaleri irteera berria egitea da, eta, beraz, funtsezkoa da irteera berria egitea.

Arazo nagusiak zeintzuk diren aipatu dira: irteera berria egiteko zailtasunak, lur-jabetza, planeamenduan eta egikaritzan egin beharreko faseak...

Proiektua egiteko aurrekontu desberdinak eskatuko dira hainbat profesionali eta Euskal Herriko Unibertsitatearekin harremanetan jarriko gara ikasleekin lantxoren bat egiteko aukera dagoen jakiteko.

2. UDAL ERAIKINETAN ENERGIA AURREZTEKO PLANA

Donostian ingeniari itza elektrikoa ikasten ari den ikasle bat etorri da eta karrera amaierako proiektua bertako udal eraikinetan inguruan egiteko asmoa duela azaldu du, energia aurrezteko planaren inguruan hain zuzen. Orain arte gai honen inguruan ze lan egin diren azaldu zaio eta lanaren nondik norakoei buruz hitz egin da.

3. ESKOLA

Eskola berriaren kokapenaren berririk ez daukagunez, berriz ere, Eusko Jaurlaritzako arkitektoari mezua bidali zaio. Beldur gara ez dugula luzaroan erantzunik izango eta zer bide hartu eztabaidatu da. Hezkuntzako arduradunekin bilera eskatuko da eta herrian ere guraso eta eskola arteko bilera egiteko beharra ikusi da.

4. FESTETARAKO ARGINDARRA

Festetan barrakak udaletxe pareko plazan jartzea erabaki da eta bertan ezarri nahi dira ohe elastiko, txurreria, haurrentzako jolasak eta tiro pitxoia. Horretarako, ordea, argindarraren puntu berria ezarri beharko da, errepidearen beste aldean dagoena urrutiegi geratzen baita. Aurrekontua eskatu da eta 1.800 €-ko kostua da. Festetako komisiolari azaldu eta beraiek erabakitzeotan geratu gara.